

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Urki 2023/11/16

Saila	Laburpena	
Udaltzaingoa	Bizilagun bat kexu da prezintatu den gazte-lokal bat dela-eta; baina beste lokal bat dago Mutiolan (6 edo 4 zk.), Juan de Aginagara ematen duena, molestia handiak eragiten dituena. Udaltzaingoari deitu zaio. Soluzioak eskatzen ditu lokalen kontuagatik.	Kexak daudenean zaratengatik, zikinkeriagatik eta halakoengatik, patruila bat joan eta gertatutakoaren txosten bat egiten dute. Hirigintza Sailak erabakitzen du behin behinean edo behin betiko ixten duen. Dena den, inguru horretan itxi dira lokal batzuk arrazoi horrengatik.
Zerbitzuak	Bizilagun bat kexu da Urkiko goialdean dagoen aldapa labaingarria dela oso.	Mankomunitatea egon zen bileran eta halaxe dio: "Hidrogarbitzailea pasatu da, bai aldapan bai parkeetan, eta erremateren bat geratzen da garbitzeko; arduraduna horren jakitun da".
Zerbitzuak	Edukiontzi batzuk daude Bar Nuevo tabernaren ondoan, eta trabatu egiten zebra-bidea. Ikusgaitasuna kentzen dute.	Mankomunitatea egon zen bileran eta halaxe dio: "Edukiontzi berria igluak zeuden tokian daude kokatuta. Hori Udaltzaingoak eta Mankomunitateak egiaztatu dute. Ez zen horren inguruko komentariarik egin, eta ez da kexurik jaso.
Obrak/Zerbitzuak	Eskatzen du Urkiko ikastetxearen aurrean, Polonia Etxeberria 19 zk.an, arrapala bat egiteko, gurditxoarekin igaro ahal izateko.	Kaleak dituen ezaugarriengatik, ezinezkoa da eskaileren ordeztarapala jartzea. Beste irtenbide batzuk aztertuko dira pegorarinoko irisgarritasuna hobetzeko.
Zerbitzuak	Otaola Bailara eta Urki Kurutzekua lotzen dituen zubiaren inguruan, farola bat dago urtebete daramana funtzionatu gabe. (Autopistaren zubiaren amaieran).	2023ko urtarrilaren 17an konpondu zen.
Zerbitzuak	Auzokide bat kexu da Urki auzoko garbitasuna dela-eta. Inguruko eskailerak belarrez beteta daude. Lorategiak ere garbitu beharra dago.	Garbitasunari dagokionez, Mankomunitatea egon zen bileran eta halaxe dio: "Toki horretan lanean ari den langilea belarrak eskuz kentzen ari da, eta, hain zuzen, uste dut zoriontzeko dei bat ere jaso

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Urki 2023/11/16

Saila Laburpena

duela. Hidrogarbigailuarekin garbitzeari dagokionez, geratzen dira tokiak garbitu barik, baina lehentasuna eman zaio labainkor dauden tokiei, eta dagoeneko eginda dago. Urki-Ubitxa.

Jardinei dagokienez, lan-agindu bat egin zen Matuteko kioskoaren eta Urki Taberna zaharraren ondoko jardinak txukuntzeko. Gainerako lorategietan mantentze-lanak egiten dira.

Zerbitzuak Emakume bate auzoko espaloiak garbitzeko eskatu du. Baita azuleju berriak jartzeko ere.

Baldosa apurtuak aldatzen joaten dira apurtu ahala, hala ere, Urki 19 zk.ko espaloia egoera txarrean dago, eta hura konpontzeko soluzio integral bat egin behar da.

Zerbitzuak Autopistaren azpian dagoen tokia lirdingaz edo “berdinez” betetzen da oso azkar, eta oso edukiontzi altuak daude (Urki 2, 4, 6 eta 8).

Mankomunitatearen erantzuna:
Toki horretan “**berdin**” asko sortzen da, Eibarko beste toki askotan bezala. Jakinarazi digute toki horretatik duela bi hilabete pasatu direla.

Edukiontziei dagokienez, bileran esan zen deserosoak zirela espaloiak altuera handia izanik pedala espaloiaaren azpitik geratzen zelako.

Hori ikusita, aldaketa bat egin zen edukiontzietan, eta pixka bat gorago jarri ziren; hortaz, pedala zutenak (bio eta errefusa) espaloia beheraxeago dagoen tokian geratu dira, eta arazoa konpondu da.

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Urki 2023/11/16

Saila	Laburpena	
Udaltzaingoa	Galdetzen du igogailuen kamerei buruz, eta ea ikus ditzakegun irudiak, igogailuak zikintzen dituztenean asteburuetan.	Hala ere, Mankomunitateak jakinarazi du duela gutxi berriz ere kexa hori jaso dutela, edukiontziak "bakarrik" mugitu direlako eta berriz ere kokatu behar izan dituztela. Hala da, kamerak daude, baina irudiak Udaltzaingoaren kontrolpean daude, eta araudiak ez du baimenik ematen irudiak edozeinek ikusteko. Nahiz eta kamerei esker jendeari isuna jarri zaion.
Udaltzaingoa	Bizilagun batek dio Urki Kurutzekuan, autopista azpian, txakur bat dagoela egun guztia zaunkaka aritzen dena. Molestatu egiten du.	Txakurra lokalizatu eta arazoa jabeari jakinarazi zitzaion. Konponduta geratu da arazoa.
Udaltzaingoa	Auzotar bat kexu da Polonia Etxeberria 13 zk.an dauden aparkalekuak direla eta. Konponbideak eskatzen ditu.	Badakigu zein den aparkalekuen arazoa inguru horretan. Udalak asmoa du aparkaleku berriak egiteko Ubitxan; kalkuluaren arabera, 100 plaza gehiago lortu ahal izango dira. Horrekin, aparkalekuen arazoa pixka bat arinduko da.
Alkatetza	Bizilagun bat kexu da Portaleko Musika Eskolako zarata dela eta.	Askotan eskatu zaio Musika Eskoari leihoak itxita edukitzeko, auzotarrei eragozpenik ez eragiteko. Leihoak itxita, inpaktu akustikoa nabarmen murrizten da; horregatik eskatu zen leihoak ixteko.
Zerbitzuak	Txaltxazelai kaleko auzotar bat kexu da kaleko argiteria dela eta. Askotan egoten dira matxurak. Txaltxazelai kalean arbola askok farolak estaltzen dituzte.	Kaleko argiteria ondo dago, eta ez dugu horren inguruko kexarik jasotzen, matxura bat dagoenean izan ezik; halakoetan, abisua pasatzen zaie elektrikariei, konpontzera pasa daitezen.

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Urki 2023/11/16

Saila	Laburpena	
Hirigintza	Kexa: errepideak estuak direnez, apurtu egiten dira kotxeetako atzerako ispilu asko.	Arbolei dagokienez. Lan-agindua egin zen, berrikusteko ea adarrek farolak estaltzen dituzten. Inausketa-lanak 2024/11/18an amaitu ziren. Adierazi den bezala, Urkin kaleak oso estuak dira. Kale-sekzio hori dela eta, aukeratu egin beharra dago espaloien zabaleraren, aparkalekuen edo errodadura-erreiaren artean. Aparkalekuak kentzea ere ez da konponbidea, eskaria handia delako. Dena den, aztertu egingo da ea egokitzapen batzuk egin daitezkeen.
Zerbitzuak	Eskatzen dute eskailera mekanikoen ordutegia luzatzea.	Batzuek eskatzen dute ordutegia luzatzea, baina beste batzuk kexatu egiten dira egiten duten zaratagatik. Eztabaida konplexua da, eta data berezietan aztertzen da.
Zerbitzuak	Kexu dira Txaltxazelai kalean paperontzi gutxi daudelako.	Duela gutxi jarri dira paperontziak Txantxazelaian. Era berean, besteren bat jarri da Jaiki Tabernaren aurrean.
Zerbitzuak	Errekatxuko bizilagun baten kexa: edukiontzien artean dagoen espaloia zaborrez, trastez eta altzariz beteta egoten da. Dionez, Errekatxuko parte zaharra zikin eta abandonatuta dago. Soluzioak eskatzen ditu.	Badakigu altzariak kalera ateratzeko eguna astelehena dela, eta gainera Mankomunitateari abisatu behar zaio. Zoritxarrez, mundu guztiak ez du hori betetzen. Baten bat harrapatzen denean, isuna jartzen zaio. Errekatxuko garbitasunari dagokionez, duela hilabete ingurua garbitu zuten Udalaren eskariz, lirdinga edo “berdina” zegoelako.
Zerbitzuak	Errekatxutik Aranerako bidean baldosak zaharkituta daude.	Bai, badakigu, eta azken egunetan kexaren bat izan dugu. Obrak amaitzen direnean, aztertu egingo da aldatu behar

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Urki 2023/11/16

Saila	Laburpena	
Alkatetza	Polonia Etxeberria 1 zk.ak eskatzen du izena jartzeko kaleari.	diren ala ez. Dena den, egoera txarrean zeudenak aldatu egin ziren. Konpondu da.
Udaltzaingoa	Urki behean, 13. zk.an, bizilagun bat kexu da kioskoaren ondoan dagoen pasabide goratuan ur-putzuak sortzen direlako, eta pegoran ura sartzen delako. Gauza bera gertatzen da 21 zk.ko pegoran.	Ez zegoen arazo horren berririk. Berriro gertatuz gero, Udaltzaingoiari abisatu behar zaio, arazoa egiaztatu eta konpontzeko lanen bat egin dezan.
Zerbitzuak	31-33 zk.ko bizilagun bat kexu da garbitasun faltagatik. Zepatik beherako eskailerak oso zikinak daude.	Mankomunitatea egon zen bileran eta halaxe dio: “Bileraren ondoren, toki hori ikustera joan ginen, eta ez zegoen zikina, inondik inora. Uste dugu toki hori ez dela jende asko igarotzen den leku bat, baizik eta badirudi pegoretarako sarbideko leku bat dela; nolana ere, garbitu barik dagoen toki bat da, eta garbituko da, baina ez zegoen zikina.
Zerbitzuak	Bizilagun batek eskatzen du auzoa “makillatzea” eta hormetako belarrak kentzea.	Mozketak eta inausketak egiten dira aldiro, lorategiak ahalik eta egoera onenean mantentzeko. Auzoa makillatzeari dagokionez, ahalik eta ondoen mantentzen saiatzen gara.
Obrak	Auzotar batek galdetzen du Ubitxa 13 zenbakiaren atzeko hormako obrei buruz.	Urki 9-11 zenbakietako atzealdeko hormaren egonkortze-obrak 2024ko martxoan amaitu dira.
Udaltzaingoa	Bodega Martín dagoen lekuan, kotxeek espaloi gainean aparkatzen dute. Bizilagunak dio kexa asko egin dituztela.	Berrantolatu egin da kalea. Aparkalekuak kendu eta zirkulazio-erreak pintatu dira, eta hobetu egin da ibilgailuen zirkulazioa.

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Urki 2023/11/16

Saila	Laburpena	
Udaltzaingoa	Ibilgailuek ez dute errespetatzen Ubitxako iturriaren ondoan dagoen stop seinalea.	Toki horretan dagoen seinalizazio egoki dago jarrita, eta ondo ikusten da, bai horizontalki bai bertikalki. Baten batek ez badu errespetatzen, isuna jarriko zaio ibilgailuari.
Zerbitzuak	Errekatxuko bizilagun bat kexu da kalean dagoen utzikeriagatik. Espaloia zaborrez eta altzariz beteta dago. (Errepikatu egin da galdera).	Mankomunitatearen erantzuna: Toki hori garbitu berria da. Urtean bi aldiz egiten ari da, eta hori ez da beste toki batzuetan gertatzen.
Udaltzaingoa	Kotxeak espaloietara igotzen dira.	Ez dakigu zehazki non, baina ibilgailu batzuek ez badute ondo aparkatzen, salaketa jartzen da; eta beharrezkoa izanez gero, garabiarekin kentzen da. Dena den, dagoen arazoa ezagututa, inoiz, espaloi gainean dagoen ibilgailuak ez badu traba handirik egiten, "baimentzen" saiatzen gara.
Zerbitzuak	Errekatxuko goialdea (iturri ingurua) negargarri dago.	Mankomunitateari eskatu zitzaion ingura ur-presioz garbitzeko. Zorua lirdingaz betea zegoen, eta ez labaintzeko, eskatu zen hura garbitzeko. Hala egin zuten duela hilabete.
Zerbitzuak	Bizilagun baten kexa: Bolingua ingurua belarrez eta sasiz beteta dago.	Duela gutxi garbitu zen Bolingua ingurua igotzen diren eskaileren pasabidea. Halaber, bizilagun batek eskatutako pibote bat jarri zen.
Zerbitzuak	Zorionak ematen ditu argiteriaren aldaketagatik, bain eskatzen du lanak amaitzeko.	Ikusi zen baten bat geratzen zela aldatzeko, obragatik, baina konpondu da dagoeneko.

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Urki 2023/11/16

Saila	Laburpena	
Zerbitzuak	Kexu da arratoiak daudelako auzoan.	Albaitariari abisatu zitzaion arratoiak akabatzeari ekiteko.
Udaltzaingoa	Eskatzen du hilerrirako sarrera erraztea.	Hilerriak zabaltzeko eta ixteko ordutegia dauka.